

47 ■ Robert Caparen argazki galduek

» 36ko gerrako 3.000 negatibo aurkitu dituzte, eta litekeena da horien artean Euskal Herriko asko egotea.



52-53 ■ Antonio Loinaz gudari ohia

«Gerran aurpegia eman behar izan genuen, eta hala egin genuen; ez naiz damutzen».

Joanes Arrosagarairen barrenean

Bertsolariaren 'Bihotz barneko solasak' argitaratu dute, Mendiburu eta Alkaten liburuekin batera

XAN AIRE
Baiona

Joanes Arrosagarai lan ongi egin maite zuen. Horren lekuko da Antonio Zabala, Auspoa sailaren zuzendaria. «Xalbadorren *Odolaren mintzoa* liburuan Ipar Euskal Herriko bertsolariak azaltzea komeni zela eta, haien argazkiak behar genituen. Arrosagarairena egiteko, haren etxera joan nintzen Aintzilako (Baxenabarre) Bentaberri. Zertara nentorren esandakoan, pixka bat itxoiteko esan zidan. Barrura sartu eta berehala azaldu zen berriro, alkandora dotorea jantzita».

Alkandora dotore hark bere oroitzapena utzi baldin badu, Arrosagarai bere aztarna utzi du bertsolaritzan. Aztarna xumea, diote batzuek, Bidasoa ibaia gutxitan zeharkatu baitu Arrosagarai, bertsotan aritzeko. Iparraldeko hiru probintzietan, ordea, oroitzapen ezia utzi du gogoetan. Gazte-rik hil baitzen Aintzilako semea: 1998an, 1949.urtean sortua. Hamasei urtetan kantatu zituen lehen bertsokak, apezpikua herrira etorririk. Lagunartean, aldis, 18 urtetan hasi zen.

Bentaberri sortetxea txukun atxikitzen pasatzen zuen astea, eta igandeetan plazan zen, bere belau-naldiko bertsolari lagunekin: Mendiburu, Alkat, Irigarai. Xan-pun, Mattin, Xalbador ere behin baino gehiagotan gurutzatu izan ditu. Baina etxe xokoan ere idazten zituen bertsokak Arrosagarai. Herria astekarian argitaratzeko. Edo Bentaberri sekretuan gertatzeko.

Baina itzaleko hitzak argitaratu egin dira, Gipuzkoako Foru Aldundia-aren eskutik, Antonio Zabalak zuzendutako Auspoa sailean, *Bihotz barneko solasak* bertsok bildumarekin. «2004an, Emile Larre eta biak Arrosagarairen etxera joan ginen», kontatu berri du Antonio Zabala, liburua aurkeztera. «Alargunak, zertara etorriak ginen entzundakoan, atsegin hartu zuen. Kaier lodi bat ekarri zigun. Berak hantxe idatziak zituen senar zenaren bertsorik gehienak, letra handi eta eder batez. Handik kopiatzea ez zen niretzat lana izan, gustua baizik».

Liburuaren aitzin-solasa egitea



Ernest Alkat, Jean-Pierre Mendiburu, Antonio Zabala eta Joxe Mari Iriondo, Baionan, liburuen aurkezpenean. NICOLAS MOLLO

eskaini zion Zabala Arrosagarai zenaren alargun Mayi Etxeberriri. Arrosagarairen bertsok bildumaren lehen lerroak harenak dira.

ERREKA HANDIAN, ZUBI TXIKIA. Horrekin batera, Baxenabarreko beste bi bertsolarien bertsok bildumak ere argitaratu berri ditu Gipuzkoako Foru Aldundiak Auspoa sailean: Ernest Alkaten *Ene ezkilaren dangak* eta Jean-Pierre Mendibururen *Ene bertsuen feiria*. «Biak ere ehunka ordu behar izan duten lanak dira», ohartarazi du Zabala. «Pentsa: Mendiburuk 1.400 bertsok baino gehiago ditu, eta Alkatek ia 1.300». Hiru liburuek denbora eman dute. «Luzea, baina ez

astuna, atsegina baizik. Lehenengo, euskaragatik. Euskara herri-koia da, aberatsa, egitazkoa, gozoa, hiru lagun hauek darabilte-na».

Hiru bertsolarien oroitarriak eraikiak direla eta, ez direla belau-naldi «goxoenekoak» izan adierazi du Alkatek. «Xalbador eta Mattinen ondoko belaualdia ginen. Bi horiek hil zirenean, Iparraldeko bertsolaritza bukatu zela erran zen. Ez zen goxo entzuteko!». Zer baldintzatan hasi ziren bertsotan oroitu da Alkat. «Neurriak ez genekizkien. Neurri luzea eta motza ziren, guretzat. Ez zen zortzikorik ala hamarrekorik! Aireak ezagutzen genituen. Arrosagarai kris-

toren beharria zuela oroitzen naiz». Emile Larrerekin ikasi zuten bertsolaritzaren kultura.

Taula gainean ere zailtasunak zituzten. «Hegoaldeko euskara ez genuen beti ulertzen. Gaiak ongi ulertu gabe kantatu izan dugu», jakinarazi du Alkatek. «Eta Xalbador eta Mattinek ere ez ziguten oparirik egiten».

Belaualdi horrek zer leku izan duen bertsolaritzan? «Erreka handi baten gaineko zubi txikia», Alkaten ustez. Mendiburuk eta Alkatek gogotik ikusi dute Ipar Euskal Herriko bertsolari gazteen jaigortzea. «Ez diegu trabarik egingen. Eta aholkuak behar baldin badituzte, hor gaude».

Bertsolantegia eta bertsolari erretiratuak 'Bertsolari'-n

ERREDAKZIOA
Donostia

Iazko udan Eibarren izandako Bertsolantegia, eta erretiratu diren hiru bertsolari dira *Bertsolari* aldizkariaren 68. zenbakiko protagonista nagusiak.

2007ko usztailaren 2tik 4ra Bertsolantegia antolatu zuten Udako Euskal Unibertsitateak eta Bertsotzale Elkarteak Eibarko Markeskua Jauregian. Hala, horren inguruan Onintza Enbeitak idatzitako erreportajearekin zabaltzen da *Bertsolari* aldizkariaren azken zenbakia. Bederatzi atal txikitan dago banatua erreportajea: Josu Zabala musikariak bertsolaritzaren munduan egindako ibilbide luzea; bertsolariak kantaririk behar duen zatia zenbatekoa izan behar duen; ondo kantatzen ikasteko bideak zeintzuk diren; Andoni Egañak Bertsolantegian emandako bertsolaritzako hamar aginduak; bertsok jaialdiak noiz diren onak bertsolariarentzat; emakumeak bertsolaritzan izan duen lekua, eta gaur egun duena zein den; Ana Urkizaren *Zortzi unibertsok* liburua; Maialen Lujanbio bertsolariaren eta Judith Montero saxofoi jotzailearen *Ornitorrinkus* ikuskizuna; eta azkenik, Bertsolantegian parte hartu zuten lagunek atsedenetan hizpide izan zituzten gaiak zeintzuk izan ziren.

Bestetik, erretiratuak egon arren lanean jarraitzen duten hiru bertsolari elkarriketatu ditu Pako Aristik: Jon Lopategi, Xabier Amuriza eta Imanol Lazkano.



E rakustaretoa

Erakusketa

Eraiki, bete, hustu
Espazioaren erabilerak

Adrian Tyler
Edward Burtynsky
Joel Meyerowitz

Asteartetik larunbata arte:
10:30-14:00 - 16:00-20:30
Otsailaren 9a arte
Bisita gidatuak: 943 112 756 - 667 346 025



www.gipuzkoa.net/kultura

Urdaneta kalea, 9
20006 Donostia



A reto nagusia. 19:30


Hitzak ispiluan

Urtarrilaren 29tik otsailaren 1era

Sorkuntza prozesuaren inguruko lau Jardunaldi

Urtarrilak 30 [Asteazkena]

Luis de Pablo konpositorearen eta honen hainbat opera-libretoren egilea den Vicente Molina Foix idazlearen arteko solasaldia



www.gipuzkoa.net/kultura

Urdaneta kalea, 9
20006 Donostia

